



AKTA BILERA 2017/07/17: ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA

Partehartzaileak:**UZTEN DUEN PRESIDENTEA**

- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIren ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.

SARTZEN DEN PRESIDENTEA

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarleen Euskal Federazioaren ordezkaria.

UZTEN DUEN IDAZKARIA

- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.

SARTZEN DEN IDAZKARIA

- MARIA YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA and., Gizarte Zerbitzuetako teknikaria (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza)

KARGUAGATIKO KIDEAK (ez dute boto-eskubiderik)

- BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.

KIDEAK (boto-eskubidea dute)

- EMILIO SOLA BALLOJERA jn., Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
- MARIA YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA and., Gizarte Zerbitzuetako teknikaria (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza)
- JOSÉ ALBERTO VICENTE OCHOA jn., ASTIALDI SAREArekin ordezkari moduan. *Euskal Herrian eskuarte-sozialerako eta haur, nerabe eta gazteekin aisialdiko heziketarako erakundearen sarea.*
- NATALIA RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ and., CONGDE Euskadiren ordezkari moduan, Euskadiren garapenerako GGKEen Koordinakundea.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jn., EAPN Euskadiren ordezkari moduan, pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jn., EHLABEren ordezkari moduan, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea.
- MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jn., ELKARTEANen ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea.
- M^a JOSÉ CANO MESÍAS and., FEDEAFESen ordezkari moduan,

Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarleen Federakuntza.

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarleen Euskal Federazioaren ordezkaria.
- ESTEBAN RIVAS CALZADA jn., GIZATEAren ordezkari moduan, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarlea.
- TERESA MAURA BARANDIARÁN and., HARRESIAK APURTUZEn ordezkari moduan, Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE koordinatzailea.
- IÑIGO VIDAURRAZAGA VIDAL jn., HIREKINen ordezkari moduan, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa.
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO and., HIRUKIDEn ordezkari moduan, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarlea.
- MIKEL MIRENA AGIRREZABAL ONDARRA jn., LARES Euskadiren ordezkari moduan, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarlea – sektore solidarioa.
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jn., ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala.
- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIn ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO and., Euskadiko UNICEF batzordearen ordezkari moduan.

GONBIDATUAK:

- ERNESTO SAINZ LANCHARES jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Familia Politika eta Garapen Komunitariko zuzendaria.
- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.
- PEDRO M^a BEITIA LOLO jn., EDE Fundazioren koordinatzailea. *DE*.
- MARCOS MURO NAJERA jn., Enplegu eta Gazteriako sailburuordea
- BORJA BELANDIA FRADEJAS jn., Lanbideko zuzendari nagusia
- MIKEL BARTUREN NUÑO jn., *SAREEN SARE*Aren koordinatzailea.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

- TXEMA ODRIÓZOLA AZURMENDI jn., FEDERPENen ordezkari moduan, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarleetako Lurralde Federazioaren ordezkaria

<u>Lekua:</u>	Vitoria-Gasteiz, LAKUA II–Batzar gela: 6. zk.
<u>Eguna:</u>	17/07/2017 (astelehena)
<u>Ordua:</u>	11:00 – 13:10
<u>Mota:</u>	Ohikoa
<u>Bilerako aztergaiak:</u>	1.– Presidentetza-aldaketa Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian. 2.– Idazkari-aldaketa Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian. 3.– Aurreko bileren akta irakurri eta onartu, hala badagokio. 4.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetzeko oinarrien agiriaren inguruko eztabaida. 5.– Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategiaren inguruko eztabaida. 6.– Egoitza-esklusio larriko strategiari buruzko informazioa. 7.– Enplegu Planari buruzko informazioa. 8.– Inklusio Planari buruzko informazioa. 9.– Kualifikazio profesionalak egiaztatzeko prozesuari buruzko informazioa (mendekotasuna eta ezintasuna). 10.– Eskaerak eta galderak.
<u>Hizkuntza:</u>	Gaztelania

Bilkura 2017ko uztailaren 17ko 11:07an hasi da.

Saioa hasita, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak (EEZM aurrerantzean), GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jaunak (*REAS EUSKADI*), ongietorria egin die bertan daudenei, eta etorri izana eskertu. Ondoren, gai-zerrendako kontuei heldu die, eta emaitza ondoren adierazitakoa da: (1. eta 2. puntuak batera aztertu dira, edukian elkarri lotuta daudelako):

**1.– EUSKADIKO ELKARRIZKETA ZIBILERA KO LEHENDAKARITZA ALDATZEA ETA
2.– EUSKADIKO ELKARRIZKETA ZIBILERA KO IDAZKARITZA ALDATZEA.**

Mahaiko lehendakariak, lehenik eta behin, bertaratuei gogorarazi die EEZMak 16/07/19an egin zuen bileran EEZMko lehendakari-, lehendakariorde- eta idazkari-karguaren luzapena erabaki zela, “Sareen Sarea” sarean karguak berri-arte-koa, eta azken hilabeteetan, estatutuetan adierazi bezala, lehendakariordea sareko lehendakaria izatera aldatu denez, berritze hori EEZMko lehendakari eta idazkari-karguetara ere eraman da.

Era berean, apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuaren ondorioz, EEZMri babes- eta laguntza emateko eskumena Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzatik Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzara aldatu da, eta horrek berekin ekarri du kide bat aldatzea zuzendaritza batetik bestera.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

- a.- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jauna (FEVAS) izendatzea EEZMko lehendakari (titularra).
- b.- YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA andrea izendatzea EEZMko idazkari (titularra).
- c.- Gizarte Zerbitzuetako zuzendari EMILIO SOLA BALLOJERA jauna izendatzea zuzendaritza eskuduneko kide.

EEZMko lehendakari berriak bere postua bete du, eta aurreko lehendakariak Mahaiari eskainitako denbora eta egindako ahalegina eskertu ditu.

3.- AURREKO BILERAKO AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Aurreko bilerako aktaren edukia aztertu ondoren¹, boto-eskubidea duten bertaratuek aho batez onartu dute akta hau:

2017ko martxoaren 27ko ohiko bileraren akta.

4.- DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA HOBETZEKO OINARRIEN DOKUMENTUARI BURUZKO EZTABAIDA.

EEZMko lehendakariak esan du bilera honetarako emandako testu bat landu dela: “*Sareen Sarea Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako 18/2008 Legearen Erreformatuen aurrean*” (**1. eranskina**), zeina oinarritzko dokumentu bat baita, *Sareen Sarea* osatzen duten erakundeen adostasuna adierazten duena.

EEZMko lehendakariak dokumentuaren sarrera egin du, eta azpimarratu EHSSan ordezkaritza duten sareek parte-hartze aktiboa izan nahi eta behar dutela parte-hartze sozialarekin eta boluntariotzarekin zerikusia duten gai-arloetan eragina duten ekimen legegileen eta politika publikoen eztabaidan eta adierazpenean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako legearen aldaketarekin gertatzen den bezala, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak (EHSS aurrerantzean) 7. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Dokumentu horretan zehatz ukitutako puntuak aurkeztu ditu ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jaunak (*EAPN Euskadi*), eta **proposatu du lantalde bat ezartzea EEZMan, diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetzeko proposamenen jarraipena** egiteko, eta batzorde teknikoaren dokumentuaz egiten diren **gogoetak jasotzeko** (*Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko Oinarrien dokumentua v. 2017ko maiatza*).

¹ Idazkari-kargua utzi duenak, MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jaunak, argitu du, M^a JOSÉ CANO MESIAS andreak (*FEDEAFES*) eskatuta, EEZMan ohitura izan dela aktan ez jasotzea bertaratuek esandako guztiak, eztabaidatu badira eta, horren ondorioz, akordioa lortu bada. Hala ere, esaten direnak zehatzago jasotzen dira, gai-ordenako puntu egokiak berariaz jasotzen badu informazioa emango dela gai zehatz bati buruz, erabakirik hartu behar izan gabe.

Amaitzeko, esan du kezkatzen duela 23 urtetik beherakoak (DSBE prestazioa kobratzeko gutxieneko adina) eta 18 urtetik gorakoak gera daitezkeen babesgabetasun-egoerak, legeak ardurapean adingabeak dituzten 23 urtetik beherakoak baino ez baititu babesten.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ andreak, EAPN Euskadiko ordezkariak esandakoa eskertu du, adierazi du gobernua prest dagoela gogoeta egiteko ekarpen horiei buruz, eta onartu du EHSSko elkarte eta fundazioekin lan-batzorde bat eratzeke proposamena, lege berria antolatu eta aberastuko duten alderdi teknikoak/politikoak azter ditzan.

Horri puntu batzuk zehaztuta erantzun ondoren, adierazita zein diren gobernuaren arrazoiak diru-sarrerak bermatzeko errentaren erreformari ekitean, eta ereduaren alderdi onak aipatuta, hitza eman dio Enplegu eta Gazteriako sailburuordeari, MARCOS MURO NÁJERA jaunari, eta horrek ekimena zer egoeratan dagoen azaldu du: lege besteko proposamenaren garapena maila juridikoan, zeina negozioazio-mahaitik eta gainerako eragileekin eta taldeekin abendura arte egiten diren bileretatik ateratzen diren hobekuntzekin osatuko baita, eta orduan hasiko da izapidetzea. Gehitu du legea aldatzearekin batera erregelamendu bat garatuko dela.

Esandakoak eskertu ditu EEZMko lehendakariak, eta, batzordea eratzeke prozedurari dagokionez, **bi solaskide izendatzea proposatu** du, ados jar daitezzen, eta **batzordea era dezaten**. Gobernuaren aldetik Enplegu eta Gazteriako sailburuordeak eta *Sareen Sarearen* aldetik *EAPN EUSKADI*ko ordezkariak onartu dute eginkizun hori. Bi aldeek batzordekideak nor izango diren erabakitzeke izango duten epea **uztailaren 21ean** amaituko da, **ostiralarekin**.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

Bakarra: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako legearen aldaketaren jarraipen-batzordea eratzea, eta Enplegu eta Gazteriako sailburuorde MARCOS MURO jaunak eta, Sareen Sarearen izenean, EAPN Euskadiko ordezkari ALFONSO LÓPEZ jaunak 17/07/21a baino lehen erabakitzea zein izango diren batzorde horretako kideak.

5.– EHSSA SUSTATZEKO ESTRATEGIARI BURUZKO EZTABAIDA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak egin du Gizarte Politiketako sailburuordeak, LIDE AMILIBIA BERGARETXE andreak, eta PEDRO M^a BEITIA LOLO jaunak (EDE Fundazioa) sustatutako estrategia horri buruzko sarrera; azken bi horiek dinamizatzailer eta laguntzailer dituzte. Estrategiaren dokumentua egiteke prozesua zuzentzen ari den lantaldeak. Batzorde horretan dira parte-hartzaile, halaber, MANUEL MERINO PASTOR jauna (LARES EUSKADI) eta M^a JOSÉ CANO MESÍAS andrea (FEDEAFES), Hirugarren Sektore Sozialaren eta Elkarriketa Zibilerako Mahaian dauden ordezkari gisa. Sailburuak esan du sailen arteko estrategia bat dela, sareen laguntzarekin egin dena EEZMaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoak duen arkitektura instituzional bereziaren ondorioz, beste administrazio batzuen jarduketak biltzen dituela; foru-aldundienak adibidez.

Hitza utzi dio PEDRO M^a BEITIA jaunari (*EDE Fundazioa*), zeinak akta honi **2. eranskin** moduan gehitutako “EHSSa Sustatzeko Estrategia” dokumentua aurkeztu baitu, eta laburtu

baititu egindako lan-prozesua, legeak estrategiari dagokionez ezartzen dituen arau-eskakizunak, lehentasunezko jarduketa, indarraldia (4 urte, 2018tik 2021era) eta dauzkan helburuak (legearen 17. artikuluko 2. zenbakia).

Esan du estrategiak EHSSa esku-hartze sozialaren esparruan ez ezik jarduera ekonomikoa sustatzeari dagokionez ere sustatzeko jarduketak eta neurriak izango dituela, eta, horretarako, bilerak egin dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin eta SPRIrekin.

Azaldu du estrategia diagnostiko batean oinarritu beharko dela (liburu zuria edo antzekoa), eta adierazleak eta aldizkako ebaluazioa izan beharko dituela, eta gauzatze-faseak laburtu ditu:

- **1. fasea:** kontrastea eta diagnostikoa egitekoa; jarduketak jasotzen zituen lehen zirriborroa izan zen emaitza.
- **2. fasea:** sareekin eta Eusko Jaurlaritzako sailekin bilerak egin ondoren, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak bilerak egin zituen aldundiekin eta Eudelekin, lan-prozesua azaltzeko eta jarduketak-kontrastatzeko (EHSSa sustatzeko estrategia propioak egitea eta beren esparruetan elkarrizketa zibilerako mahaiak edo antzeko tresnak garatzea). Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eratutako batzorde tekniko eta politiko batek, zeina Gizarte Politiketako sailburuordeak eta EEZMko beste bi pertsonak osatzen baitute (aurreko aktako 3. puntua), lanaren jarraipena egiten du, eta gehitutako 2. eranskina Estrategiaren bigarren zirriborroa da.
- **3. fasea:** edo ekarpenak integratzeko **egungo unea**. Plana litzateke irailaren hasieran azken kontraste tekniko eta politikoa egitea Enplegu eta Sailarekin eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin, eta aipatutako batzorde mistoarekin eta sareekin biltzen jarraitzea, honetara pasatzeko:
- **4. fasea** (urrian gutxi gorabehera): biltzea estrategia amaituta dagoenean, EEZMk azter eta onar dezan.

Estrategiako jarduketei dagokienez, PEDRO M^a BEITIA jaunak (*Fundación EDE*) fitxa-zirriborro bat erakutsi du, lehentasunezko 35 jarduketa jasotzen dituen, eta esan du aldundien, Eudelen, batzorde mistoaren eta sareen azken feedbackaren zain daudela.

EEZMko lehendakariak aurkezpena eskertu du, eta esan du, proiektua asmo handikoa denez, ahaleginak dosifikatu beharko liratekeela, eta Gizarte Politiketako sailburuordeak, LIDE AMILIBIA andreak, erantzun dio estrategia errealista eta zabala dela, lau urteotarako ekimenak proposatu behar baitira, eta onartu du lan handia dela strategiarekin zerikusia duten sail guztien ekarpenak jasotzea.

ESTEBAN RIVAS CALZADA GIZATEAko ordezkariak esan du garrantzitsua dela *balioa ematea gobernuaren eta sareen arteko elkarrizketa zibilaren ereduari*, bai diru-sarreraren bermeari dagokionez, bai estrategia honi dagokionez, berekin baitakar bitartekotza egitea gobernuko sail guztiekin; uste du esparru gehiagotan erabili beharreko eredu bat dela.

Esateko beste ezer ez dagoenez, EEZMko lehendakariak hurrengo puntuari ekin dio.

6.- BIZILEKU-BAZTERKETA LARRIAREN AURKAKO ESTRATEGIARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, BEATRIZ ARTOLAZABAL andreak, esan du Osasun Sailaren ekarpenak jaso dituztela, eta jasotzeke dutela Etxebizitzak egingo duen ekarpena; gaineratu du Estrategia EEZMan irailean / urrian onartzea aurreikusten dela. Estrategiaren ondoriozko ekintzen jarraipena egiteko, **Gobernuaren eta EHSSaren artean batzorde misto bat sortzea proposatu** nahi du.

Gizarte Politiketako sailburuordeak, LIDE AMILIBIA andreak, gogorarazi du EEZMaren aurreko bileran strategiaren testua banatu zela (2017/03/25eko aktaren 2. eranskina), eta Osasunak eta Etxebizitzak bidalita azken ekarpenak abuztua baino lehen jaso ondoren, dokumentua berriz bidaliko dela sareetara, hurrengo EEZMrako utzita strategiaren onarpena. Adierazi du inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zaiola batzorde horretan partekatzea estrategiarekin bat egingo duten erakundeen jarraipena, eta egiaztatzea estrategia tresna moduan eraginkorra dela. Gizarte Politiketako sailburuordea batzorde horretako kide denez, **eskatu du jakinaraz diezaiotela** posta elektroniko bidez **nor izango diren parte-hartzaile** sareen aldetik, eta EEZMko lehendakariak berretsi egin du hori.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

Bakarra: Batzorde misto bat sortzea Gobernuaren eta EHSSaren artean, Bizileku-bazterketa Larriaren Aurkako Estrategiaren ondoriozko ekintzen jarraipena egiteko; sareek parte-hartzaileak jakinaraztearen zain geratu da.

7.– ENPLEGU PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, BEATRIZ ARTOLAZABAL andreak, jakinarazi du Enplegu Plana dela Gobernuaren helburuetako bat, eta zehaztu du plana, Enplegu Sailak gidatu arren, Gobernuak sailen ekarpenekin gauzatu dela: Hezkuntza, Ekonomiaren Garapena eta Lan eta Justizia Saila. Enplegu Planaren helburuak eta edukiak laburtu ditu, eta esan du zer parte-hartzaileekin hitz egin den (enplegu-forua, Confebask, sindikatuak eta abar), eta Elkarriketa Sozialerako Mahaiaren 17/07/18ko bileran onartu nahi dela abian jartzea **Enplegu Plan Estrategikoa**, 2017-2020koa.

Hitza hartu du Enplegu eta Gazteriako sailburuordeak; MARCOS MURO jaunak, eta akta honi **3. eranskin** moduan gehitutako dokumentuaz aritu da (*Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzak Lanbideko bulegoei honako gai hauei buruz egindako aurkezpena: 2020ko Enpleguaren Euskal Estrategia, 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa, Euskal Enplegu Sistemaren Legea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta*). 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoaren egungo egoeraz hasi da, eta gogorarazi hori Eusko Jaurlaritzak Elkarriketa Sozialerako Mahaiaren hartutako konpromisoetako bat zela; mahai horretan, sindikatuak eta patronalaz gain, gobernu bera zegoen, enplegu-arloari lotuta dauden lau sailak ordezkari zituela: Ekonomiaren Garapena, Hezkuntza, Lana eta Justizia eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila.

Era berean, esan du 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa dela Enplegurako eta Berraktabazio Ekonomikorako Esparru-programaren funtsezko ardatza, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean bederatzi jarduketa-esparru erabaki direla, honako hauek

sustatzeko neurriekin: gazteen enplegua; emakumea guztiz sartzea ekonomia- eta lan-jardueran; tokian tokiko eta eskualdean eskualdeko enplegu-planen bidez laneratzea; enplegurako prestakuntza; ekintzailatza; enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea; toki-merkataritza finkatzea; eta “Renove” programak eraikuntzan, bereziki intentsiboak enpleguaren sorreran. Plan hori 07/18an aurkeztu da Elkarrizketa Sozialerako Mahaian, eta geroago Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan, bere irizpena emateko, eta Gobernu Kontseilura eramateko, urrian onetsi dezan.

Bestalde, adierazi du legegintza-egutegian 2019rako aurreikusita dutela Euskal Enplegu Sistemaren Legea, eta argitu du ez dela izango enpleguari buruzko lege bat, baina bateratzekoa, *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 LEGEAK* eskumenak ematen dizkielako udalei enplegu-arloan. Horregatik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila harremanetan dago zerikusia duten beste eragile batzuekin, beroriek ere parte har dezaten egitura horren eraketan.

8.– GIZARTERATZE PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Enplegu eta Gazteriako sailburuordea akta honi **4. eranskin** moduan gehitutako aurkezpenaz aritu da (*Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzaren aurkezpena, 2017/2020ko Gizarteratzeko Euskal Planari buruzkoa*).

Gizarteratzeko plan berria 2017. urte honen amaierarako onartuta egotea aurreikusten da, eta, horretarako, lehiaketa bidez, idazkaritza teknikoa kontratatu da, gobernuari lagun diezaion laugarren plana egiten (2017-2021). Esleipendunak *SIIS* eta *EDE Fundazioa* izan dira.

III. Plana ebaluatzea eta IV. Plana definitzea Erakundearteko Batzordeari dagozkio, zeina Eudelek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen baitute, eta, horretarako, talde tekniko bat eratu behar da, aipatu laugarren plan hori zehazten aurrera egin dezan.

Prozesuan, inplikaturako gainerako eragileen iritzia kontuan hartuko da: gobernuko zenbait sailek osatzen duten erakundearteko batzordearena, EEZMarena bertan dauden erakundeen bidez, eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluarena (stand-by moduan zegoen, eta 35 erakunde ditu kide). Ebaluazioa egin ahal izateko, galdetegi bat bidali zaie batzordeetako, Kontseiluko eta sareetako kideei. Bilera bat egingo da irailaren 6an erakundearteko batzordearekin, eta espero da orduan izatea egindako ebaluazioaren emaitzak. Eztabaida eta ondorioak irail/urrian alde guztiekin eta Work Café metodologia erabiliz egindako jardunaldi batean garatuko lirateke, eta urriaren amaieratik aurrera Gizarteratzeko Plana izapidetuko litzateke, abenduan onartuta izateko.

9.- MENDEKOTASUN- ETA DESGAITASUN-KUALIFIKAZIO PROFESIONALAK EGIAZTATZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak hartu du hitza, EMILIO SOLA jaunak, eta jakinarazi du aurreko maiatzean Sevillan eztabaida luzea izan ondoren oraindik ere jaso gabe dagoela IMSERSOrekin itundutako dokumentu bat, Ministerioan dokumentuari buruz bozketa egiteko asmoa baitzuten.

Era berean, esan du IMSERSOk soil-soilik jotzen duela baliozkotzat gizarteratzeko goi-mailako teknikaria delako titulazioa jardunean dauden langileentzat, eta egoera prekarioan uzten duela gizarteratzearen prestakuntza-etorkizuna. Egun, legeak zaintzaileen salbuespenezko gaikuntza jasotzen du, baldin eta, 2015eko abenduaren 31n, 55 urteko adina bazuten eta, gainera, egiaztatu ahal bazuten gutxienez hiru urteko lanbide-esperientzia zutela, gutxienez 2.000 ordu lan eginda azken hamar urteetan. Adina betetako 50 urtera jaistea itundu da, eta eztabaidatzeko dago onartzea 12 urtera handitzea egiaztatu beharreko gutxieneko esperientziako 2.000 orduko aldia, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak onartzen duen kontua.

Gehitu du 2017-12-31n amaituko dela mendekotasun- eta desgaitasun-kualifikazio profesionalak egiaztatze gehieneko epea. Esan du aurreikusitako 2015eko SEPEaren makro-deialdia ez zela egin azkenean, eta orain zerrenda itxiak eskatuko zaizkiela autonomia-erkidegoei, izen-abizenekin. Era berean, honako lorpen hau nabarmendu du: gaikuntzarik gabeko zaintzaile guztiak (7.000tik gora EAEn) derrigortuta egon beharrean lehen deialdian sartzera Lanbidek eta Lanbide Heziketak deitutako prestakuntza-bitartekoaren bidez, zeinak 880 leku baino ez baitauzka, legeak aukera ematen die “lehen deialdietan” (pluralean) parte hartzeko. Gobernuaren asmoa da irailetik aurrera **erregistro berezi** bat izatea, pertsona horiek guztiak ofizialki **aurrez inskribatuta** gera daitezen deialdirako **urrian zehar**; horrenbestez aukera izango lukete prestakuntza ofiziala osatzeko hurrenez hurrengo deialdietan 2022. urtera arte.

Mendekotasunaren esparrua baztertuta soil-soilik desgaitasunera bideratutako laguntzaile pertsonalaren figurari buruz MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jaunak (*ELKARTEAN*) egindako interpelazioari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak esan du autonomia-erkidegoren batek pentsatzen zuela laguntzaile pertsonalaren figura desgaitasunera soilik bideratzea, eta horrek Gipuzkoako Diputazioa kezkatu zuela, 5.000 laguntzaile pertsonal baino gehiago dituztelako (Estatuko guztien % 88) mendekotasunaren esparruan murgilduta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak *bere alegazioak gehitu zizkien* Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zuzendari nagusiaren (TXARO RODRIGO MONTALVO andrearen) taldeak egindakoei, *bi modalitateak kontuan har daitezen*, eta, gainera, egoitza-zentroek eskatzen dutena baino prestakuntza oinarritzekoagoa galdegin dadin, soldata txikiagoa kobratuta praktika-ordu gehiago eskatzen zaizkielako.

PABLO GONZALEZ jaunak (*FEVAS*) gai horrek elkarrekin duen eragina azpimarratu du.

Amaitu baino lehen, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, BEATRIZ ARTOLAZABAL andreak, kargua utzi dutenen lana, lehendakariarena eta idazkariarena, eskertu du, bai eta PABLO GONZALEZ jaunak (*FEVAS*) egindakoa ere, ereduarekin jarraitzeko erronka bere gain hartzeagatik.

GONZALO RODRIGUEZ jaunak (*REAS EUSKADI*), hitza hartu du, eta guztiei eskertu die emandako laguntza, bereziki MIGUEL ANGEL HURTADO jaunari, idazkari- eta jurista-lanagatik, eta gehitu du pribilegiotzat jotzen duela EHSSko kide izatea eta EEZMan parte hartzea, eta ildo beretik jarraitzea animatu du. Era berean, jakinarazi du beste pertsona batek ordezkatzeko duela REAS Euskadi EEZMaren hurrengo bileran.

10.- GALDE-ESKEAK.

Aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, EEZMko lehendakariak bukatutzat jo du bilkura 13:10ean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 17a

O. E.

Pablo González Gutiérrez jauna	M ^a Yolanda Menchaca Barruetabeña
Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko	andrea
lehendakaria	Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko
	idazkaria.

Aktaren eranskinak:

- 1- *"Sareen Sarea Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako 18/2008 Legearen Erreformaren aurrean" dokumentua.*
- 2- *"EHSSa Sustatzeko Estrategia" dokumentua; Pedro M^a Beitia jaunak aurkeztuta.*
- 3- *Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzak Lanbideko bulegoei egindako aurkezpena honako gai hauei buruz: 2020ko Enpleguaren Euskal Estrategia, 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa, Euskal Enplegu Sistemaren Legea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta).*
- 4- *Enplegu eta Gazteriako Sailburuordetzaren aurkezpena, 2017/2020ko Gizarteratzeko Euskal Planari buruzkoa.*